

HONDARRIBIAN

Zer berri?



Hondarribiak errespetu gehiago merezi du



¡YA BASTA DE MIRAR HACIA OTRO LADO!



Queremos denunciar la cantidad de carteles, pancartas y pintadas que invaden nuestras calles. Una imagen que no refleja el respeto ni el cuidado que nuestra ciudad merece.



Gure buruari galdetzen diogu: non dago gobernu? Zergatik ez dago erreakzio publikorik espazio publikoekiko errespetu falta horren aurrean?

Turismoa eta hiri-autobusa: apirileko osoko bilkuraren protagonistak

Talde turistikoak mugatzea eta plan estrategiko baten beharra

Talde turistikoak 25 lagunera mugatzen dituen ordenantzaren onarpenari dagokionez, EAJtik aldeko botoa eman genuen. Zentzuzko neurria dela uste dugu, bisitarien eta hondarribitarren arteko elkarbizitza hobetzen lagun dezakeena, baita hiriaren berezitasuna zaintzen ere. Hala ere, azpimarratu nahi dugu turismoa, Hondarribiarentzat garrantzitsua den jarduera ekonomiko gisa, ezin dela ordenantza-kolpe bakarrik kudeatu.

Premiazkoa da, sektorearekin eta herritarrekin batera, Hondarribiarentzat zer eredu nahi dugun argi eta garbi zehaztuko duen turismo-plan estrategiko bat diseinatzea: turismo jasangarria, errespetuzkoa, gure

kultura, historia eta ondarea balioetsiko dituen.

Udalak turismo eredu ez planifikatzeak ez du eragingo bisitariak ez etortzea, kontrakoa baizik: turismoa ordenarik gabe, irizpide argirik gabe eta norabiderik gabe haztea eragingo du.

Hiriko autobus zerbitzuaren lizitazioa: bultzatzen eta babesten dugun ekimena

Hiriko autobus-zerbitzuaren lizitazioaren onarpenari dagokionez, gogorarazi nahi dugu proiektu hori EAJak bultzatu zuela aurreko agintaldietan. Pozten gaitu gaur egungo gobernuak azken bi urteetan oinarri horren gainean lan egiten jarraitu duela ikusteak.

Hala ere, gure ustez **garrantzitsuak diren hobekuntza batzuen falta sumatzen dugu**. Lehenik eta behin, uste dugu zerbitzuaren **maiztasuna 20 minutukoa** izan beharko litzatekeela, eta ez 30 minutukoa, herritarren beharrei hobeto erantzuteko. Bigarrenik, gure ustez, geldialdi batzuetan hobekuntza-obra egin behar ziren alde aurretik, mugikortasun urriko pertsonen irisgarritasuna bermatzeko.



"El PNV apoya mejoras para Hondarribia pero pide más ambición: plan estratégico de turismo y accesibilidad en el futuro autobús urbano"



“Jaurlaritzak duela urte batzuk bultzatutako proiektua egi bihurtuko da”

Mendelu-Plaiiaundi bidegorria eta San Lorentzoko aintzira berreskuratzekeo proiektua bideratuko du Estatuak Jaurlaritzak aurkeztu zuen proposamenarekin.



Urteetan administrazio-arazoak izan ondoren, Eusko Jaurlaritzak bultzatutako proiektua errealitate bat izango da.

Hala berretsi zen apirilaren 30eko Txingudiko Mahaian. EAJ-PNVk ospatu nahi du ekimenak aurrera egitea, **mugikortasun iraunkorrerako** eta **Hondarribia, Irun eta Hendaia lotzeko funtsezkoa baita**. Eskualdeko hiru hiriak beren **ingurune naturalarekiko errespetu handiagoz lotzeko** urrats garrantzitsua izango da.

**Bidegorria uraren mailatik gorako boladizoan eraikiko da*

Euskadi pide eliminar el límite de 24 metros en las ayudas del FEMPA



La consejera de Alimentación, Desarrollo Rural, Agricultura y Pesca, **Amaia Barredo** ha trasladado al Comisario europeo de Pesca la **petición del sector pesquero vasco** de modificar el **FEMPA** (Fondo Europeo Marítimo, de Pesca y de Acuicultura) para **eliminar el límite de 24 metros de eslora en las ayudas a la compra de barcos de segunda mano por jóvenes pescadores**. También reclama permitir **ayudas para cambiar motores** en embarcaciones mayores, clave para la sostenibilidad. Euskadi defiende que estas restricciones frenan el relevo generacional en la pesca.

Aberri Eguna 2025



Joan den apirilaren 20an Hondarribiko Batzokian Aberri Eguna ospatu genuen. Hainbeste maite ditugun **Miguel Tovar, Patxi Echeverria “Burni” eta Joserra Mutuberria “Mutu”** alderdikideren familiek ikurrina altxatu zuten emozio handiz.

Une berezia izan zen, eta ekitaldian parte hartu genuen guztiok hunkitu egin ginen. **Aukera polita izan zen gure hurbiltasuna erakusteko Miguel, Burni eta Muturen familiei, faltan sentitzen baititugu.**

